

IRAGARKIA

258. ALDIZKARIA - 2022ko abenduaren 23a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK IRURTZUN

Ordenantza, arautzen duena nola kudeatu gizarteratzeko eta/edo larrialdi sozialeko prozesuetarako laguntzak. Behin betiko onespena

Irurtzongo Udalak, 2022ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea ordenantza hau: Ordenantza, arautzen duena nola kudeatu gizarteratzeko eta/edo larrialdi sozialeko prozesuetarako laguntzak.

Iragarkia 2022ko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 14an, bai eta Udalaren iragarki-taulan ere, eta horren ondotik jendaurreko aldia iragan da inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe. Hortaz, behin betiko onetsizat jotzen da.

Ondotik testu osoa argitaratzen da, orok jakin dezan eta gainerako ondorioak izan ditzan, bete beharrez uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324., 325. eta 326. artikuluetan ezarritakoa (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

Irurtzunen, 2022ko azaroaren 22an.–Alkatea, Aitor Larraza Carrera.

ORDENANTZA, ARAUTZEN DUENA NOLA KUDEATU GIZARTERATZEKO ETA/EDO LARRIALDI SOZIALEKO PROZESUETARAKO LAGUNTZAK IRURTZUNGO UDALERRIAN

1. artikulua. Xedea eta helburua.

Ekonomiaren aldetik eta/edo gizarte eta osasunaren aldetik gabezia frogatuak izanda, gizarteratzeko oinarrizko beharrak estaltzeko zailtasunak dituzten pertsonak eta/edo familiak diruz laguntzea da oinarri hauen xedea, betiere Irurtzongo bizilagunak badira. Horretarako, diru sarien bidez babesa emateko bitartekoak sortuko dira, bateragarriak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak (aurrerantzean, OGZ) ematen dituen programen jardun profesionalekin. Horren bidez, krisi egoeretan esku hartzen ahal da, inguruabar horiek okerragora egin ez dezaten edo kroniko bilaka ez daitezen. Izaera berezia izanen dute, ez baitira aldian behingoak, baizik subsidiarioak, beste prestazioekiko.

Laguntza horien xedea da:

–Udalak, bere ardura soziala aintzat harturik, tresna espezifiko bat eskaintzea, zertarako eta arintzeko pobrezia endemikoa nahiz mementokoa jasaten dutenen egoera, bai eta beren kabuz baliatzeko gaitasun gutxi dutenena ere, tresna hori erabil dadin gainerako prestazio sozialen osagarri.

–Deserrotzea edo gizarte-bazterketa eragiten edo larritzen duten egoerak arintzea.

–Sostengua eta baliabide profesionala izatea, udalerrri hau parte den Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak gizarteratzeko prestatzen dituen prozesuetan.

Familia-unitate bakoitzari ematen zaizkion gizarte larrialdietako laguntzak eta/edo gizarteratze prozesuetan laguntzekoak bateragarriak izanen dira beste prestazio ekonomiko batzuekin, baldin eta horien guztien batura ez bada estali nahi den beharra baino handiagoa, kontuan harturik 9. oinarrizko a) eta c) apartatuetan adierazitako salbuespenak. Ezin dira diru-laguntza hauen kontura egotzi toki entitateek familia-unitateei oinarrizko beharrak asetzeko ematen dizkieten aurrerakinak, baldin eta gizarteratze prozesuaren barrenean alderdiek adostutako akordioaren arabera itzuli behar badira.

2. artikulua. Definizioak.

1. Gizarteratzeko eta/edo larrialdi sozialeko prozesuetarako laguntza: ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa, gizarte-bazterketako egoerei aurrea hartzeko edo halakoak saihestu edo arintzeko behar diren berriazko gastuei (arruntak edo bereziak) aurre egiteko baliabide ekonomiko aski ez duten familia-unitateei.

Prestazioek honako ezaugarri hauek dituzte:

–Helburu zehatz baterako dira, hau da, zertarako ematen diren, hartarako bakarrik izanen dira.

–Pertsonalak eta besterenezinak dira, familia-unitate batentzat diren aldetik.

–Berehala tramitatzekoak dira: laguntzak ahalik eta azkarren jasotzeko moduan kudeatuko dira.

–Profesionalen jardunaren osagarri dira, hau da, neurri lagungarri bat dira, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak familia-unitatean esku hartzeko.

2. Bizikidetzako familia-unitatea: ordenantza honen ondorioetarako, bertan sartzen dira eskatzailea eta, hala badagokio, harekin bizi diren pertsona bat edo gehiago, elkartuta daudenak ezkontzaren bidez edo pareko afektibitate-harreman baten bidez, edo daukatenak bigarren gradurainoko odol-ahaidetasuneko lotura edo lehen gradurainoko ezkontza-ahaidetasuneko lotura.

3. Familia-unitatearen baliabide ekonomikoak: familia-unitateari egozteko moduko diru-sarrerak eta ondarea (ondasun higigarriak eta ondasun higiezinak).

Familia-unitatearen diru-sarreratzat hartuko dira eskaera egiten denean unitateko edozein kidek dituenak, honako hauen bidez eskuratuak:

–Besteren konturako lan etekinak edo enpresa edo lanbide jardueren bidezkoak (zenbateko gordinak, behin kenduta Gizarte Segurantzako kotizazioak eta ordaindu dena eskubide

pasiboengatik, nahitaezko mutualitateengatik eta antzekoengatik), prestazioak eta pentsioak, eta hilerio jasotzen den beste edozein diru-sarrera.

–Ohiko bizilekutik aparteko ondasun higiezinak emandako etekin garbiak (alokairuak, errentak,...).

–Kide bakar baten urteko errenta bermatuaren % 65 gainditzen ez duten aurrezkiak.

3. artikulua. Aurrekontuko diru erabilgarria.

Horretarako erabiliko den zenbatekoa Irurtzongo Udalaren urteko aurrekontuetan egonen da zehaztuta. Aurrekontuko partidak dirauen bitartean irekirik egonen da eskabideak aurkezteko epea.

4. artikulua. Prozedura.

Interesdunek eskabide sinatua aurkeztu beharko dute, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Ordenantzaren 8. artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da eskabidearekin batean.

Mankomunitatean kasua hartzen duen profesionala izanen da eskabideen prozedura irekitzeko organo eskuduna. Egokiak iruditzen zaizkion jarduketak egingen ditu, zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko ebazpen proposamena ekarriko duten datuak.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko profesionalen taldea izanen da ebazpena proposatzeko organo eskuduna, eta Mankomunitateko lehendakariari dagokio ebazpena sinatzea.

Gehienez 4 egun balioduneko epean emanen da ebazpena, interesdunak bere beharra Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari komunikatzen dion egunetik.

Ebazpena eman ondoan eta hura laguntza ematearen aldekoa bada, gehienez ere 2 egun balioduneko epean ordainduko da diru saria, laguntza hauek azkar ematekoak baitira. Laguntza emateko erabakia hartzen den egunean hasiko da epea zenbatzen.

Onartutako laguntzak aldi bakarrean nahiz zatikatuta ordaindu daitezke (aurretik alderdien artean adosturik, gizarteratze prozesuaren barnean).

Onartzen diren prestazio ekonomikoak gehienez hilabeteko epean justifikatuko ditu hartzaileak, laguntza ordaindu zen egunetik hasita.

5. artikulua. Familia-unitate onuradunek bete beharrekoak.

Gizarteratzeko eta/edo larrialdi sozialeko prozesuetarako laguntzak eska ditzakete baldintza hauek guztiak betetzen dituzten pertsonak nahiz familia-unitateak:

1) Eskatzailea 18 urtetik gorakoa izatea, edo adingabe emantzipatua, bere ardurapean adingabeak dituen.

2) Irurtzunen erroldatuta egon beharko du eskabidea egin baino hiru hilabete lehenagotik gutxienez.

- 3) Eskatera egiten denean, familia-unitateko kide guztien hileroko diru-sarrerak ezin dira izan handiagoak hileroko errenta bermatua halako bi baino, hau da, eskatzailearen familiaren osaerari egokituko litzaiokeen hileroko errenta bermatua halako bi baino.
- 4) Familia-unitateko kide guztien ondasun higigarriak, eskaera egiten den unean, ezin dira izan handiagoak azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean ezarritako ondasun higigarri konputagarriak baino. Foru lege horren bidez arautu ziren gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak.
- 5) Familia-unitateko kide guztien ondasun higiezinaren katastro-balioa, ohiko bizilekua kenduta, ezin da izan handiagoa kide bateko familia-unitateentzako urtebeteko errenta bermatua halako hamar baino.
- 6) Gastu zehatzei aurre egiteko zailtasunak izatea, eta gastu horiek ordaintzea beharrezkoa izatea gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko edo halakoak saihestu edo arintzeko.

Familia-unitate eskatzailea Errenta Bermatua jasotzen ari baldin bada, ulertuko da betetzen dituela 3., 4. eta 5. apartatuetako baldintzak.

Aipatutako betebeharrak bete direla frogatuko da ordenantzaren 8. puntuan azaldutako agirien bidez.

Salbuespenez, eta kasua hartu duen Mankomunitateko profesionalak balorazio txostena eman ondoren, kontuan har daitezke oinarri hauetan bildutako baldintza bat edo batzuk betetzen ez dituzten espedienteak, salbu Irurtzunen erroldatua egotearena.

6. artikulua. Aplikazio-eremua.

Laguntza hauek puntualak eta subsidiarioak dira, ez dira aldian behingoak eta bai aldiz borondatearen arabekoak. Urte berean, kontzeptu beragatik laguntza bat baino gehiago tramitatzen bada, guztizko zenbatekoak ez ditu gaindituko ordenantza honen 9. artikuluan jasotako muga ekonomikoak.

7. artikulua. Bateragarritasuna.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira jarduera garatzeko lortzen ahal diren beste batzuekin, horiek beste administrazio publiko batzuetatik, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik edo partikularretatik etorri, Espainiakoak edo nazioartekoak izan.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Eskaearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskabide betea, udalerrri hau parte den Mankomunitateak emanen duen eredu normalizatuarekin bat.
- b) Eskatzailearen nortasun agiri nazionala, edo atzerritarren identifikazio zenbakia, edo pasaporte, eta, hala behar denean, haren izenean ari den ordezkariarena.
- c) Bizikidetzaren ziurtagiria (gehienez 3 hilabeteko antzintasuna).

d) Eskatu aurreko 6 hilabeteen bizikidetzaren unitateak izan dituen diru-sarrera guztien frogagiriak, edo, bestela, familia-unitatearen diru-sarrerei buruzko zinpeko deklarazioa:

–Nominak.

–Pentsioen ziurtagiria.

–Errentamenduetatik etorritako diru-sarreraren frogagiria.

–Ohiz kanpoko beste diru-sarrera batzuk (herentziak eta legatuak, kalte-ordainak kaleratzeagatik edo bestelako egoera batengatik, etab.).

–Izan duten beste edozein diru-sarrera.

e) Bankuaren frogagiria, bere titulartasuneko kontu guztien egungo saldoarekin.

f) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, edo diru-sarrera egiteko banku-kontuaren zenbakia.

g) Erreferentziako profesionalak eskatzen dituen gainerako agiriak, beharrezkoak iruditzen zaizkionak laguntzaren auzia baloratzeko.

2. Baldin familia-unitate eskatzaileek errenta bermatua jasotzen badute, ez da beharrezkoa izanen c eta d apartatuetan aipatutako agiriak aurkeztea, interpretatzen baita betetzen direla baldintza horiek.

3. Ez da beharrezkoa izanen eskatutako agiriak aurkeztea baldin jada Mankomunitateak badauzka. Aurrekoa gorabehera, Mankomunitateak ezin badu materialki agiria lortu, eskatzaileari galdegiten ahal zaio agiri hori aurkez dezala (kasu batzuk ezin badira frogatu agiri espezifikoak aurkeztuta, horren ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena erabiliko da).

9. artikulua. Gastu diruz lagungarriak.

Ikus taula osoa

KATEGORIA	KONTZEPTUA	URTEKO GEHIENENKO ZENBATEKOAK FAMILIA-UNITATEKO
OSTATUA	Honako hauek ordaintzeko: etxebizitzaren alokairua, etxebizitzaren hipoteka maileguaren kuota, etxebizitza partekatuko gela, bestelako ostaturen bat (apopilo etxea, hotela eta abar), auzokideen erkidegoko gastuak. (*) 3 hilabete, gehienez.	2.000 euro
	Etxebizitza berrirako alokairuaren kontratua, baldin eskatzailearen benetako eta ohiko bizitokia bada, baldin berekin badakar hasierako ordainketa apartekoa eta baldin	800 euro

	diru baliabide aski badu etxebizitzaren ohiko ordainketei aurre egiteko. Urtean behin.			
OINARRIZKO HORNIDURAK	Gastu hauek: ur hotzaren hornidura, zaborrak, kontribuzioa eta bestelako zerbitzu batzuk (estolderia, zaborrak biltzea, eta abar). Hiruhileko bat urtero, hornidura bakoitzeko.		800 euro	
	Gastu hauek: argindarra, gasa, berokuntza, ur bero zentrala eta bestelako erregaiak (egurra, ikatza, berokuntzarako gasolioa). 3 hilabete urtero, hornidura bakoitzeko.			
	Oinarrizko horniduren kontratuen altak, ohiko bizilekuan; altaren kostuaren kopurua emanen da gehienez ere. Urtean behin, hornidura bakoitzeko.		200 euro	
NUTRIZIOA ETA HIGIENEA	Familia-unitatea osatzen dutenen eguneko elikadurako eta higieneko gastuak (oinarrizko elementuak norberaren eta etxeko higienarako). (**). Gehienez ere 6 hilabete urtean	Familia-unitateko kideen kopurua	Gehieneko zenbatekoa laguntza mota bakoitzeko	Gehieneko zenbatekoa, urteko
		1	50	300 euro
		2	100	600 euro
		3	150	900 euro
		4 edo gehiago	200	1.200 euro
PRESTAKUNTZA, ETA GIZARTEAN ETA LAN MUNDUAN SARTZEA	Honetarako gastuak: parte hartzea prestakuntza ez arautuetan eta/edo laneratze eta gizarteratze jardueretan, norbera gaitzeko, gizarteratze eta laneratze prozesuaren barnean.		400 euro	
OINARRIZKO BESTE PREMIA BATZUK	Atal honetan jasoko dira aurreko ataletan zehaztu gabeko laguntzak, baldin Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren balorazio teknikoaren	Gehieneko zenbatekoa urteko eta pertsonako		

	bidez justifikatzen bada horiek eman egin behar direla. Aurrekontuaren %60 izanen da diruz lagungarria, betiere gainditu gabe urteko eta pertsonako gehieneko zenbatekoa.	400 euro
<p>(*) Dirulaguntzan ezin da sartu kontzeptu honengatikoa gastua baldin eta laguntza jaso duen familia-unitateak, eskaera egiten den unean, jasotzen baditu helburu bererako laguntzak, hain zuzen ere araututa daudenak abenduaren 26ko 28/2018 Foru Legean, zeinak arautzen baitu etxebizitzarako eskubide subjektiboa Nafarroan.</p> <p>(**) Dirulaguntzan ezin da sartu kontzeptu honengatikoa gastua baldin eta laguntza jaso duen familia-unitateak, eskaera egiten den unean, jasotzen badu errenta bermatua, arautua dagoena azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean.</p>		

10. artikulua. Eskaerak baloratzeko irizpide objektiboak.

1.–Ordenantza honetako dirulaguntzen eskaerak baloratzeko, irizpide hauek baliatuko dira:

1. Ordenantzaren 5. apartatuko baldintzak betetzea.
 2. Laguntza emateak larrialdia behin-behinean konpondu beharko du.
 3. Laguntza partziala emanen da baldin horrela onuradunak bere larrialdia konpontzen ahal badu.
- 2.–Eskaerari ezetz esanen zaio baldin Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen profesionalak uste badu ez direla betetzen oinarri hauetan zehazturiko baldintzak, edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

- a) Dagokion profesionalarekin hitzartutako helburua betetzea eta hitzartutako jarduerak edo atazak egitea, konpon dadin dirulaguntza eskatzea ekarri duen egoera.
- b) Justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, jarduera egin dela eta dirulaguntzaren helburua bete dela.
- c) Jaso baldin bada beste dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik nahiz baliabiderik lagundutako jarduerak finantzatzeko, horien berri ematea jakin bezain laster Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari.
- d) Ordenantzaren 12. puntuko kasuetan, jasotako zenbatekoak itzultzea.
- e) Men egitea Mankomunitateak dirulaguntzen inguruan egiten dituen egiaztapen jarduketei eta finantza kontrolekoei.

12. artikulua. Jasotako zenbatekoak itzultzea.

Jasotako laguntza itzuli beharko du onuradunak honako kasu hauetan:

–Dena itzultzea:

- Ez badu betetzen jasotako laguntza hilabete batean, gehienez, justifikatzeko betebeharra, Mankomunitateak eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita.
- Laguntza zertarako eman den, beste zerbaiterako erabiltzea.
- Laguntza eskuratzea eskatutako baldintzak bete gabe.
- Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzea.

–Zati bat itzultzea:

- Justifikatzen ez denean emandako zenbateko guztiari dagozkion gastuak, diferentzia itzuliko da.
- Jaso direnean beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera nahiz baliabide batzuk jarduera diruz lagungarriak finantzatzeko.

13. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Dirulaguntza eta laguntza publikoen alorrean, administrazioko arau-haustek dira honako jokabide hauek, baldin tartean badaude doloa, errua edo zabarkeria hutsa:

- a) Laguntza edo dirulaguntza eskuratzea hura emateko baldintzen inguruko datuak faltsututa, edo ezkutatuta laguntza hori baztertuko edo mugatuko luketen datuak. Arau-hauste horrek berekin ekarriko du urte baterako galtzea Mankomunitatearen laguntza ekonomikoak jasotzeko aukera.
- b) Jasotako zenbatekoak ez erabiltzea dirulaguntza ematean ezarririk zeuden helburuetarako, salbu eta diru hori itzuli bada errekerimendurik egin gabe. Arau-hauste horrek berekin ekarriko du 6 hilabeterako galtzea Mankomunitatearen laguntza ekonomikoak jasotzeko aukera.
- c) Onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiak direla eta, dirulaguntza ematearen ondorioz hartutako betebeharrak ez betetzea. Arau-hauste horrek berekin ekarriko du urte baterako galtzea Mankomunitatearen laguntza ekonomikoak jasotzeko aukera.

Iragarkiaren kodea: L2215645